



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko azaroaren 10a

128. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- 10-22/LEY-00013. Foru Legea, 20.000.000 euroko aparteko kreditu bat ematen duena Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamenturako. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).
- 10-22/LEY-00014. Foru Legea, 2022rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 18/2021 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- 10-22/PRO-00018. Foru Lege proposamena, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluari buruzko uztailaren 2ko 15/2008 Foru Legea aldatzen duena. Nafarroako Alderdi Sozialista, Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek eta Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarrekin aurkeztu dute (6. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 10-22/ITP-00042. Interpelazioa, Nafarroara atzerriko talentu digitala erakartzearen arloko politikari buruzkoa. Ángel Ansa Echeagaray jaunak aurkeztu du (10. or.).
- 10-22/ITP-00043. Interpelazioa, etxebizitzaren arloko politika orokorrari buruzkoa. Pablo Azcona Molinet jaunak aurkeztu du (10. or.).
- 10-22/MOC-00101. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko Haur eta Gazteen Ospitaleratze Psikiatrikoko Unitatearen presako erreforma egin dezan. Domingo González Martínez jaunak aurkeztu du (11. or.).
- 10-22/MOC-00104. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da maiatzaren 11ko 186/1993 Foru Agindua alda dezan, bekatze aldera garraiatutako eta sozioekonomikoki egoera ahulean dauden ikasleak, edozein dela ere haien jardunaldia, eta jantokirako laguntzak emateko irizpide gisa erabil dezan familien egoera sozioekonomikoa, sare publikoan edo itunduan eskolatuta dauden kontuan hartu gabe. Pedro José González Felipe jaunak aurkeztu du (12. or.).

- 10-22/MOC-00033. Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da etxegabetasuna desagerarazte alderako politika publikoak bultza ditzan. Osoko Bilkurak onetsia (14. or.).
- 10-22/MOC-00100. Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen da ukitutako udalekin eta, oro har, hezkuntza-erkidegoarekin, bultza dezan DBHko lehen zikloa ezartzea hura edukitzeko borondatea adierazi duten tokietan. Osoko Bilkurak onetsia (15. or.).
- 10-22/MOC-00103. Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da garraio txartel bateratu bat (GTB) ezar dezan, Nafarroan barnako mugikortasuna erraztuko duena. Osoko Bilkurak onetsia (15. or.).
- 10-22/MOC-00099. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Sodenaren Administrazio Kontseilutik legezko ekintzak abiaraz ditzan Nafarroako Enpresarien Konfederazioaren aurka, horrek eros eta ordain dezan Albyn Medical SLk 2022ko maiatzaren 7an sinatutako akordioaren bidez erositako maskaretatik soberan gelditutakoen stocka. Osoko Bilkurak ezetsi du (16. or.).
- 10-22/MOC-00102. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gasoliozko galdaren jabeendako laguntzen lerro bat abiaraz dezan. Osoko Bilkurak ezetsi du (16. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- 10-22/POR-00359. Galdera, barne fiskalizazioko txostenak argitaratzeko erabakiari dagokionez Gardentasunaren Kontseiluak 2022ko abuztuaren 29an hartutako erabakia betetzeari buruzkoa. Ramón Alzorritz Goñi jaunak egin du (17. or.).
- 10-22/POR-00360. Galdera, “Aste zuria” eskola kanpainako ikasleen kopuruak pandemia garaiko mailan mantentzeari buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (17. or.).
- 10-22/POR-00361 Galdera, Nafarroako Foru Komunitatean giza papilomaren birusaren aurkako txertoa 12 urteko mutilentzat ezartzeari buruzkoa. Patricia Fanlo Mateo andreak egin du (18. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- 10-22/CIE-00002. Ikerketa batzorde bat eratzea, joan den ekainean Nafarroan gertatutako suteen kudeaketaren gainekoa. Osoko Bilkurak ezetsi du (19. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

10-22/LEY-00013. Foru Legea, 20.000.000 euroko aparteko kreditu bat ematen duena Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamenturako.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2022ko azaroaren 3an egindako Osoko Bilkuran, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamenturako 20.000.000 euroko aparteko kreditu bat ematen duen Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2022ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Legea, 20.000.000 euroko aparteko kreditu bat ematen duena Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamenturako

ATARIKOA

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuan ikusi da laguntza programa bat ezarri beharra dagoela, horren bidez finantzatzeko enpresek 2022ko otsailaren 1etik irailaren 30era izan dituzten gainkostu energetikoak; programa horretarako krediturik ez dago, ordea.

Errusiak Ukrainaren aurka egindako erasoaren ondorioz, EBn elektrizitatearen eta gasaren prezioetan izandako igoerak nabarmen eragin dio energiaren merkatuari. Gauzak horrela, 2022ko martxoaren 24an EBAOn argitara eman zen Errusiak Ukrainaren aurka egindako erasoaren ondorioz ekonomia sostengatzeko estatu-laguntzen arloko neurrietarako denbora-esparrua; horretan aurreikusten denez, aldi baterako laguntza emateak arindu dezake gasaren eta elektrizitatearen prezioen ez-ohiko gorakada, handi samarra izan baita.

2022ko ekainaren 13an, Europako Batzordeak Errusiak Ukraina inbaditu ondoren ekonomia

sostengatzeko laguntzen arloko neurrietarako denbora-esparru nazionala onetsi zuen. Denbora-esparru nazional horretan xedatutakoarekin bat, agintari eskudunek zenbateko mugatuak dituzten aldi baterako laguntzak ematen ahalko dizkiete enpresa eta autonomoei. Laguntza horiek gehiezen ere 2022ko abenduaren 31ra bitartean eman beharko dira.

2022ko abuztuaren 18an, Europako Batzordeak SA.102771 aldatzea onetsi zuen, gehieneko muga berriak ezartzeko: 500.000 euro enpresa bakoitzeko. Salbuespena dira arrantzaren, akuikulturaren eta nekazaritzako produktuen lehen mailako ekoizpenaren sektorean jardunean dauden enpresak.

Azaldutako egoera hori dela eta, Nafarroako enpresa guztiei eragiten baitie, laguntza programa bat ezarri behar da, enpresek 2022ko otsailaren 1etik irailaren 30era izan dituzten gainkostu energetikoak finantzatzeko.

Kontuan hartuta ukitutako enpresen eta onuradun izan daitezkeen kopurua (4.000 inguru), kalkulatu da 20.000.000 euroko kreditua behar dela laguntza hauetarako.

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuan ez dago laguntza horietarako finantzabiderik.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 48. artikulua ezartzen du ezen, hurrengo ekitaldira arte berandutu ezin daitezkeen gasturen bat aurrekontu indardunaren kargura egin behar bada eta krediturik ez badago, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposaturik, foru lege proiektu bat bidaliko duela Nafarroako Parlamentura, aparteko kreditu bat ematekoa. Bigarren paragrafoan xedatzen du aparteko kredi-

tua edozein gastu programatan erabilgarri dagoen kredituarekin finantzatzen ahal dela.

1. artikulua. Aparteko kreditu bat ematea.

2022ko ekitaldian 20.000.000 euroko aparteko kreditu bat ematen da, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko Departamentuaren beharrak finantzatzeko.

PARTIDA	ZENBATEKOA
810001-81100-4701-422204 “Energiaren prezio altuen eraginpean dauden enpresentzako laguntzak”	20.000.000 euro

2. artikulua. Kreditu bereziaren finantzaketa.

20.000.000 euroko aparteko kreditu hori indarreko sarrera-aurrekontuko 157001-17A00-1005-000000 “PFEZaren bidezko sarrerak” partidaren kargura finantzatzeko da.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

10-22/LEY-00014. Foru Legea, 2022rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 18/2021 Foru Legea aldatzen duena.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2022ko azaroaren 3an egindako Osoko Bilkuran, 2022rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 18/2021 Foru Legea aldatzen duen Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2022ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Legea, 2022rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 18/2021 Foru Legea aldatzen duena

ATARIKOA

2022rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 18/2021 Foru Legeak, 14. artikuluko 7. apartatuan, baimena eman zion Nafarroaren Garapen Sozietatea SLri (Sodena) 1.700.000 euroko mailegua emateko Parque de la Naturaleza de Navarra SAri (Parquenas). Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa SLUK eskatu

du baimen hori handitu dadila, beste 1.500.000 euroko mailegua eman diezaion Nafarroaren Garapen Sozietatea SLk Parque de la Naturaleza de Navarra SAri. Eskaera justifikatzeko, adierazi du parkea lehengoratzeko jarduketa batzuk egin behar direla aurten, udan izandako sutearen ondorioz, eta jarduketa horiek sartzen direla 2024an amaituko den parkean egin beharreko inbertsioen planaren barruan.

Halaber, Nafarroaren Garapen Sozietatea SLk (Sodena) adierazi du komeni dela Sodenak Parque de la Naturaleza de Navarra SAri emandako eta eman beharreko maileguek interesak sor ditzatela, bakar-bakarrik, mailegu-hartzaileak etekinak sortzen dituenen; halaxe xedatu baita Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 82 ter artikuluko 3. apartatuan. Eskaera justifikatzen da finantzaketa egokitu egin behar delako Parquenasak sortutako baliabideetara.

Horregatik guztiagatik, bidezkoa da 2022rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 18/2021 Foru Legearen 14. artikulua aldatzea.

Artikulu bakarra. 2022rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 18/2021 Foru Legea aldatzea.

Bat. Aldatu egiten da 2022rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 18/2021 Foru Legearen 14.7 artikulua, eta hauxe da testu berria:

“7. Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 75. artikuluko 3. apartatua eta 82 ter artikuluko 2. apartatua xedatutakoarekin bat, baimena ematen zaio Nafarroaren Garapen Sozietatea SLri 2022an mailegu eta abal eragiketa berriak egiteko, bietarik edozein, Parque de la Naturaleza de Navarra SAren, gehienez ere 3.200.000 euroko zenbatekoa izanen dutenak”.

Bi. 2022rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 29ko 18/2021 Foru Legearen

14. artikuluari 8. apartatua eransten zaio. Hona hemen haren testua:

“8. Bat etorrira Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 82 ter artikuluko 3. apartatua xedatutakoarekin, baimena ematen zaio Nafarroaren Garapen Sozietatea SLri, foru lege honek indarra hartzen duenetik aurrera, alda ditzan Parque de la Naturaleza de Navarra SAri emandako maileguen interes-tasak eta finka ditzan horri eman beharreko maileguen interes-tasak. Interes horiek sortuko dira, bakar-bakarrik, mailegu-hartzaileak ekitaldian emaitza positiboak lortzen baditu.

Emandako maileguen interes-tasen aldaketak ez du eraginik izanen, inola ere, mailegu horietan jada sortutako interesetan”.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

10-22/PRO-00018. Foru Lege proposamena, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluari buruzko uztailaren 2ko 15/2008 Foru Legea aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko azaroaren 7an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dien legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroako Alderdi Sozialista, Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek eta Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluari buruzko uztailaren 2ko 15/2008 Foru Legea aldatzen duen Lege proposamena, eta presako eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetu dadin eskatu dute.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 110., 111., 148. eta 158. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluari buruzko uztailaren 2ko 15/2008 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2. Foru lege proposamena presako eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetzea.

3. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako, eta Nafarroako Gobernuari adieraztea bere iritzia emateko epea zortzi eguneko dela.

4. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2022ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Lege proposamena, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluari buruzko uztailaren 2ko 15/2008 Foru Legea aldatzen duena

ZIOEN AZALPENEA

I

Ekonomia soziala, bai eta horrek gizartean eta jarduera ekonomiko orokorrean nahiz Nafarroakoan betetzen duen eginkizuna ere, bereziki garrantzitsuak dira.

2011n Ekonomia Sozialari buruzko 5/2011 Legea onetsi zen, ekonomia soziala osatzen duten entitateendako esparru juridiko komun bat ezarri eta haien sorrera sustatzeko helburuarekin.

Ekonomia sozialari buruzko legee dagokienez, Europar lehenbizikoa da ekonomia soziala sustatzea interes orokorreko zeregintzat hartu eta bote-re publikoak premiatzen dituen –bakoitzaren eskumenen esparruan– ekonomia soziala sustatzeko politikak ezar ditzaten.

Lege honek honela definitzen du ekonomia soziala: 4. artikuluan jasotako printzipioei jarraikiz beren kideen interes kolektiboa edo interes ekonomiko edo sozial orokorra edo bi horiek bilatzen dituzten entitateek esparru pribatuan egiten dituzten jarduera ekonomiko eta enpresarialen multzoa.

Besteak beste, honako printzipio hauek definitzen dute ekonomia soziala:

– Pertsonak eta helburu sozialak nagusitasuna izatea kapitalaren gaintetik, eta hori gauzatzen da kudeaketa autonomo eta garden, demokratiko eta parte-hartzaile batean, zeinak ekarriko baitu erabaki-hartzean lehentasuna ematea pertsonari eta haiek entitateari eginiko lan- eta zerbitzu-ekarpenei, edo xede sozialari, ezen ez kapital sozialari egiten dizkieten ekarpenei.

– Jarduera ekonomikotik lortutako emaitzak aplikatzea enpresako bazkideek edo kideek eskainitako lanaren edo egindako zerbitzu edo jardueraren arabera nagusiki, eta, kasua bada, entitatearen xede sozialari begira.

– Barneko eta gizartearekiko elkartasuna sustatzea, horren bidez honako hauekiko konpromisoa erraztuz: tokiko garapena; gizonen eta emakumeen aukera-berdintasuna; kohesio soziala; gizarte-bazterketako arriskuan dauden pertsonen gizarteratzea; kalitatezko enplegu egonkorren sorkuntza; bizitza pertsonala, familiakoa eta lanekoa bateragarri egitea, eta jasangarritasuna.

– Botere publikoekiko independentzia.

Besteak beste, honako hauek osatzen dute ekonomia soziala: jarduera ekonomikoa duten kooperatiba, mutualitate, fundazio eta elkarteek, lan-sozietateek, laneratze enpresek, enplegu-zentro bereziek eta eraldaketarako nekazaritza-sozietateek.

II

Europar, ekonomia sozialaren sektoreak ekonomia sozialeko 2,8 milioi entitate biltzen ditu, 13,6 milioi laguni enplegua ematen dietenak eta irtenbide zehatzak eta berritzaileak ematen dituztenak aurre egin behar diegun erronka nagusietarako: kalitate oneko lanpostuak sortu eta mantentzen dituzte, lagundu egiten dute talde behartsuak gizarteratu eta lan-merkatuan integra daitezen eta guztiendako aukera-berdintasuna egon dadin, garapen ekonomiko eta industrial jasangarria bultzatzen dute, herritarrek gure gizarteetan parte-hartze aktiboa izan dezaten sustatzen dute, garrantzi handia dute Europako gizarte-babeseko sistematan, eta Europako landa-eremuak eta eremu despopulatuak suspertzen dituzte.

Europako Batzordearen ustez, ekonomia sozialak lagundu dezake eskubide sozialen Europako zutabearen printzipioak ezartzen eta 2021eko Ekintza Plana eta EBk 2030erako dituen helburu nagusiak betetzen; adibidez, enplegu-tasa handitzea eta pobrezia eta gizarte-bazterketaren arriskua duten pertsonen kopurua murriztea. Horretarako, Europako Batzordeak 2021eko abenduan onetsi zuen Europako Ekonomia Sozialeko Ekintza Plana, helburutzat duena ekonomia sozialaren garapena sustatzea eta gizarteaz nahiz ekonomiaz denaz bezainbatean duen indar eraldatzailea bultzatzea.

Estatuan, ekonomia sozialaren sektoreak 43.000 enpresa eta entitate baino gehiago biltzen ditu, 2,2 milioi langile dituztenak jarduera-sektore guztietan.

Politika horiek garatzeko, Espainiako Gobernuak Ekonomia Sozialeko Espainiako Estrategia onetsi du, ekonomia sozialeko entitateen enpresa-eredua eta balioak finkatzeko eta hazkunde ekonomiko jasangarri eta solidario baterako eredu bat sustatzeko, Espainia lehiakorrago eta modernoago batean.

Azkenik, Nafarroako Foru Komunitatean, ekonomia sozialaren sektoreak 1.250 enpresa eta entitate baino gehiago biltzen ditu, zuzeneko enplegua ematen dietenak, jarduera-sektore guztietan, 25.000tik gora pertsonari, kooperatiba, lan-sozietate, laneratze enpresa, enplegu-zentro berezi, fundazio eta ekonomia solidarioko entitateetan. Halaber, ekonomia soziala Nafarroako Gobernuaren politiken parte da, sektore hori ordezkatzen duten erakundeek Nafarroako hainbat kontseilu eta erakundetan parte hartzen baitute, hala nola honako hauetan: Nafarroako Enplegu Zerbitzua, Ekonomia eta Gizarte Kontseilua, Merkataritzaren Kontseilua, Lanbide Heziketaren Kontseilua, Lan Osasunaren Kontseilua, Kontseilu Kooperatiboa, eta abar.

Ekonomia soziala esanbidez sartuta dago 2030erako Nafarroako S4 Estrategian (Nafarroako Espezializazio Adimentsu eta Jasangarriaren Estrategia), 2020-2023 aldirako Nafarroa Suspertu planean eta 2021-2023 aldirako Nafarroako Enplegu Politika Aktiboen Planean.

Nafarroako Gobernuak, sektorea ordezkatzen duten erakundeekin elkarlanean, ekonomia sozialeko berariazko estrategia bat diseinatu du, 2021-2024 aldirako Nafarroako Ekonomia Sozialaren II. Plan Integralean gauzatua (Gobernuaren erabaki baten bidez onetsia 2021eko irailaren 22an). Planaren helburua da ekonomia soziala baliatuta kohesio soziala eta lurralde arlokoa handitzen laguntzea, horretarako 2030 Agendaren, Europako politiken eta suspertze-funtzen erronkak txertatuz.

III

Ekonomia Sozialaren Legearen 7. artikulua xedatzen du ekonomia sozialeko entitateek zilegi izanen dutela beren interesak ordezkatu eta defendatzeko elkarteak eratzea, zeinak elkarren artean taldekatu ahalko baitira.

Estatu-eremuan ordezkaritza duten sektorearteko konfederazioek ordezkaritza izanen dute haien interes ekonomiko eta sozialei eragiten dieten gaiak jorratzen dituzten Estatuko Administrazio Orokorraren partaidetza instituzionaleko organoetan. Era berean, Estatuko Administrazio Orokorraren organoetan ordezkaritza izanen dute

ekonomia sozialeko entitate gehienak biltzen dituzten estatu-mailako erakundeek, beren izaera juridikoagatik eta jardueragatik berezkoak zaizkien ordezkari-tza-jarduera guztietan.

7. artikulua laugarren apartatuan xedatzen da autonomia-erkidego bakoitzeko erakunde, federazio edo konfederazio ordezkari-tza-erakunde izanen dituztela beren interes ekonomiko eta sozialei eragiten dieten gaitan diharduten autonomia-erkidegoetako administrazioen partaidetza instituzionaleko organoetan, autonomia-erkidegoek aurreikusten duten moduan.

CEPES, Ekonomia Sozialeko Espainiako Enpresa Konfederazioa, estatu-eremuan ekonomia sozialaren enpresa-erakunde ordezkari eta erreferentziakoa da Espainian, eta solaskide ere bada pertsonak ardatz dituen Ekonomia sozialeko enpresa-eredua bultzatzeko politika publikoak eta sozialak eraikitze aldera.

Honako hauek biltzen dira CEPESen: estatuko konfederazioak; autonomietako konfederazioak; kooperatiba, lan-sozietate, mutualitate, laneratze enpresa eta enplegu zentro berezien interesak ordezkatzeko dituzten enpresa-talde berariazkoak. Azken horiek 200 laguntza-azpiegitura baino gehiago dituzte autonomietan, eta CEPES Nafarroa da horietako bat, Nafarroan ekonomia soziala ordezkatzeko duen eskualde-erakunde.

CEPES Nafarroak (Ekonomia Sozialaren Enpresa Konfederazioa) Nafarroako ekonomia sozialaren familien erakunde ordezkariak biltzen ditu, eta indar-batuketaren erakunde da, bultzatzeko ekonomia sozialaren garapena eta haren presentzia enpresa-eredu hori sustatzen eta ikusgarriago egiten laguntzen duten erabakitze-foro, -erakunde eta -guneetan.

IV

Ekonomia Sozialaren Legearen 8.2 artikulua berariaz premiatzen ditu botere publikoak ekonomia soziala txerta dezaten prestakuntza-etapa desberdinetako ikasketa-planetan; hain zuzen, hala jasota dator Espainiako Estrategian, zeinak berariaz jasotzen baitu ekonomia sozialeko enpresen eta unibertsitatearen artean ezagutza-transmisioa bultzatzea.

Bestalde, Nafarroako Ekonomia Sozialaren II. Plan Integralean berariaz jasota datoz gazteak unibertsitate-eremuko ekintzailak kooperatiboan sentsibilizatu eta gaitzeko jarduketak, eta gauzatzeko dituzten 1.3.2 ekintza –ekonomia solidarioa ikastetxetara hurbiltzeko programa– eta 1.3.3 ekintza –Campus kooperatiboa– [“b. Unibertsitate-eremua: prestakuntza ematea Koo-

peratibismoaren eta Ekonomia Sozial enpresariaren inguruan eta Nafarroan dauden gazte unibertsitateei zuzendutako Ekintzailak Kooperatiboa]”.

V

Unibertsitateei buruzko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren 14. artikulua xedatzen du unibertsitate publikoen gizarte-kontseilua dela gizarteak unibertsitatean duen partaidetza-organoa, eta gizartearen eta unibertsitatearen arteko harreman-elementu gisa taxutzen da. Artikulu horretan jasota dator autonomia-erkidegoetako arabei dagokiela gizarte-kontseiluaren osaketa eta eginkizunak arautzea eta haren kideak hautatzea.

Nafarroako Foru Komunitatean, uztailaren 2ko 15/2008 Foru Legeak arautzen ditu Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluaren izaera, helburuak, eskumenak, antolaketa, funtzionamendua eta osaketa.

Lege horren 9. artikuluaekin bat, hemeretzi kidek osatzen dute Gizarte Kontseilua. Sei kide unibertsitate-erkidegoa ordezkatzeko dute; eta gainerako hamahiruek, Nafarroako interes sozialak, honela banaturik:

a) Bost kide, Nafarroako Parlamentuak gehien-oso hautatuak.

b) Bi kide, izendapenaren aurretik Nafarroako Foru Komunitatean egindako azken hauteskunde sindikaletan emaitza ofizialen arabera ordezkari gehien lortu dituzten bi sindikatuak proposaturik hautaturikoak.

c) Bi kide, Nafarroako Foru Komunitatean ordezkari-tza-eremuko handienekotzat jotzen diren enpresaburuaren elkarteak proposaturik araudi indardunaren arabera hautatuak.

d) Lau kide, Hezkuntza Departamentuko titularrak proposaturik hautatuak.

Ildo berean doa Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluaren antolaketari eta funtzionamenduari buruzko Erregelamendua onesten duen otsailaren 8ko 7/2010 Foru Dekretuaren 4. artikulua.

Foru legearen hitzaurreak azaltzen duenez, gizarte-kontseilua gizarteak unibertsitatean parte hartzeko organo kideaniztuna da, eta erakundearen eta gizartearen arteko harremanetarako elementua da; beste hainbat eginkizunen artean, Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin elkarlanean aritzearena du, Europako Goi Mailako Hezkuntzaren Esparru berria eraikitzen, eta unibertsitatearen eta

haren ingurune kultural, profesional, ekonomiko eta sozialaren arteko harremanak sustatzearena, unibertsitate-kalitatearen mesedetan.

Horregatik guztiagatik, erabat justifikatutzat jotzen da NUPeko Gizarte Kontseiluaren osaeran ekonomia sozialaren ordezkari bat txertatzearen beharra eta egokitasuna, era horretan ekonomia soziala unibertsitate-eremuan sar dadin eta ekarpena egin diezaien ekonomia sozialaren eta unibertsitatearen arteko harremanei. Horretarako, beharrezkoa da Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluari buruzko uztailaren 2ko 15/2008 Foru Legearen 9. artikulua aldatzea.

Hori horrela, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Gizarte Kontseiluari buruzko uztailaren 2ko 15/2008 Foru Legea aldatzea proposatzen da, honelaxe:

Artikulu bakarra. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluari buruzko uztailaren 2ko 15/2008 Foru Legearen 9. artikulua aldatzen da. Honako testua izanen du:

“9. artikulua. Osaera.

1. Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluak hogeita bat kide izanen ditu.

2. Sei kidek unibertsitate-komunitatea ordezkatu dute, honela banatuak:

a) Berezko hiru kide: errektorea, idazkari nagusia eta kudeatzailea.

b) Gobernu Kontseiluak bere kideen artean hautatutako hiru kide, unibertsitate-komunitatea ordezkatu dutenak: irakasle bat, ikasle bat eta administrazioko eta zerbitzuetako langileen ordezkari bat.

3. Hamabost kidek Nafarroako interes sozialak ordezkatu dituzte, honela banatuak:

a) Bost kide, Nafarroako Parlamentuak gehien-go osoz hautatuak.

b) Bi kide, izendapenaren aurretik Nafarroako Foru Komunitatean egindako azken hauteskunde sindikaletan emaitza ofizialen arabera ordezkari gehien lortu dituzten sindikatuak proposaturik hautatuak.

c) Bi kide, araudi indardunaren arabera Nafarroako Foru Komunitatean ordezkari handienekotzat jotzen diren enpresaburuen elkar-teeak proposaturik hautatuak.

d) Bi kide, Nafarroako ekonomia sozialaren ordezkari handienekotzat jotzen den edo diren erakundeak edo erakundeak proposaturik hautatuak.

e) Lau kide, Hezkuntzako kontseilariak proposaturik hautatuak”.

Azken xedapenetako lehena.

Hiru hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak otsailaren 8ko 7/2010 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Gizarte Kontseiluaren Antolaketa eta Funtzionamendu Erregelamenduaren egokitzapena egin beharko du, haren osaerari dagokionez foru lege honen 1. artikulua bidez egiten den aldatetara doitzearren.

Azken xedapenetako bigarrena.

Foru lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamu-nean.

E saila:

INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

10-22/ITP-00042. Interpelazioa, Nafarroara atzerriko talentu digitala erakartzearen arloko politikari buruzkoa.

ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko azaroaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak Nafarroara atzerriko talentu digitala erakartzearen arloko politikari buruz aurkezturiko interpelazioa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dago-

en Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 184. artikuluan xedatutakoaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten dio Nafarroako Gobernuari, talentu digitala Nafarroara erakartzearen arloko politikei buruzkoa, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Talentu digitala erakartzea funtsezkoa da eskualde-garapenerako. Gaur egungo egoerari dagokionez, Nafarroan ez dago enpresa teknologikoen beharrak asetzeko talentu nahikorik, eta merkatu global batean gaude, gero eta lehiakorragoa, zeinetan zaila baita berariazko profilak aurkitzea; hortaz, interesgarria da jakitea zer neurri hartu behar dituen Gobernuak gai horren inguruko gaur egungo egoera aztertu eta identifikatzeko eta talentu digitala erakartzeko ekintzak proposatzeko.

Iruñean, 2022ko urriaren 24an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

10-22/ITP-00043. Interpelazioa, etxebizitzaren arloko politika orokorrari buruzkoa.

PABLO AZCONA MOLINET JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko azaroaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pablo Azcona Molinet jaunak etxebizitzaren arloko politika orokorrari buruz aurkezturiko interpelazioa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Pablo Azcona Molinet jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten du, bigarren lehendakariorde eta Lurralde Antolamenduko, Etxebizitzako, Paisaiako eta Proiektu Estra-

tegikoetako kontseilariak Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Interpelazioa, etxebizitzaren arloko politika orokorrari buruzkoa.

Iruñean, 2022ko urriaren 25ean

Foru parlamentaria: Pablo Azcona Molinet

10-22/MOC-00101. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko Haur eta Gazteen Ospitaleratze Psikiatrikoko Unitatearen presako erreforma egin dezan.

DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko azaroaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko Haur eta Gazteen Ospitaleratze Psikiatrikoko Unitatearen presako erreforma egin dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Txomin González Martínez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko Haur eta Gazteen Ospitaleratze Psikiatrikoaren Unitatea Nafarroan haur eta gazteen osasun mentalari arreta ematera zuzenduta dagoen zerbitzu-sarearen parte da. Krisialdian laguntza emateko baliabide gisa ezarrita dago, eta programa gomendatuta dago tratamendu ambulatorioa ez denean aski haien sintomak kontrolatzeko; hortaz, denboratarte batean zaintza eta gainbegiratze handiagoa

behar dute, ospitaleratzea eragin zuen krisi, fase larri edo zergatiari irtenbidea aurkitu arte.

Gaur egun, unitateak lau ohe ditu, bi gelatan banatuak, espazio komun txiki batekin, zeinetan gaixoek mota guztietako eguneroko jarduerak egiten dituzten: otorduak, jarduera akademikoa, jarduera terapeutikoak, terapia okupazionala, eta abar.

COVID-19aren pandemiak geroztik, zerbitzuak gorakada handia izan du unitate horretan egiten den laguntza-jardunari dagokionez. Eskariaren eta premiaz artatuak izateko beharraren igoera horrek nahitaez ekarri du baliabidea "handitzea" eta gaixo dauden haur eta gazteei arta ematea; hain zuzen, azpiegiturak dituen gabezia fisikoenatik laugarren solairuan kokatu behar izan dituzte, ospitaleratze pediatrikokoan, edo are helduen unitatean. Konponbide edo adabaki hauen ondorioz, gazte horiek egun osoa ematen dute Haur eta Gazteen Ospitaleratze Psikiatrikoaren Unitatean, eta lo egitera haien geletara itzultzeko dira, unitatetik kanpo. Une honetan, unitateak egunez duen okupazio-indizea lau gaixotik zazpira pasa da. Jardun-maila hori ohiko bihurtu da.

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Unibertsitate Ospitaleko Haur eta Gazteen Ospitaleratze Psikiatrikoaren Unitatearen presako erreforma egin dezan, gutxienez izan ditzan zortzi ohe, laguntza-jarduera modurik onenean egiteko gune komun nahikoak eta kalitatezko osasun-laguntza bermatzeko giza baliabide egokiak.

Iruñean, 2022ko urriaren 27an

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez

10-22/MOC-00104. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premia-tzen da maiatzaren 11ko 186/1993 Foru Agindua alda dezan, bekatze aldera garraiatutako eta sozioekonomikoki egoera ahulean dauden ikasleak, edozein dela ere haien jardunaldia, eta jantokirako laguntzak emateko irizpide gisa erabil dezan familien egoera sozioekonomikoa, sare publikoan edo itunduan eskolatuta dauden kontuan hartu gabe.

PEDRO JOSÉ GONZÁLEZ FELIPE JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko azaroaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Pedro José González Felipe jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premia-tzen baita maiatzaren 11ko 186/1993 Foru Agindua alda dezan, bekatze aldera garraiatutako eta sozioekonomikoki egoera ahulean dauden ikasleak, edozein dela ere haien jardunaldia, eta jantokirako laguntzak emateko irizpide gisa erabil dezan familien egoera sozioekonomikoa, sare publikoan edo itunduan eskolatuta dauden kontuan hartu gabe.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Hezkuntza Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikita dagoen Pedro González Felipe jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Hezkuntza Batzordean eztabaidatzeko.

Azken egun hauetan eskoletako jantokiak finantzatzeko moduari buruzko eztabaida piztu da. Sozioekonomikoki egoera ahulean dauden familiei zuzendutako jantokirako bekak murrizten ari dira ikastetxe publiko eta itunduetan, hala diru-kopuruari nola laguntza emateko irizpideei dagokienez.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 80. artikulua administrazio publikoei agintzen die gizarte, hezkuntza eta kultura aldetik egoera zaurgarrian dauden pertsona, talde, gizarte-ingurune eta lurralde-eremuei

zuzendutako ekintzak garatu ditzatela, xede hartuta haien sarbidea, presentzia, partaidetza edo ikasketa mugatzen duten trabak kentzea, horrela bermatuta arrazoizko doikuntzak norbanakoen beharren arabera eta haien hezkuntza- eta gizarte-garapen handiena sustatzeko behar den laguntza emanez, modu horretan hezkuntza-inklusiboa eta besteekiko berdintasun baldintzetan eskura izan dezaten.

Hezkuntzako kontseilariaren ekainaren 13ko 93/2008 Foru Aginduaren 36. artikulua ezartzen du berdintasuna eta desparekotasunen konpentsazioa bermatzeko, urtero deialdi eta laguntzak ezarriko direla jantokirako, eskola-materialerako eta jarduera osagarri eta prestakuntzakoetarako.

Esparru horren barruan, Nafarroan derrigorrezko hezkuntzako ikastetxe publiko ez-unibertsitarioetako eskola-jantokiak araututa daude uztailaren 24ko 246/1991 Foru Dekretuaren bidez, zeinetan ezartzen baitira jantoki-motak (eskualdekoak eta arruntak); hain zuzen, 3. artikuluan zehazten da artikulua horren hirugarren apartatuari lotutako ezaugarri bereziak betetzen dituzten jantoki arruntetako ikasle bazkaltiarrek ezartzen diren bana-banako laguntza ekonomikoak jasotzen ahalko dituztela. Arauak jasotzen dituen ezaugarri berezi horien artean dago sozioekonomikoki egoera ahulean dauden sektoreetako ikaslea izatea.

Foru Dekretu hori arautzeko asmoz, maiatzaren 11ko 186/1993 Foru Agindua egin zen; honako hau berariaz jasota dator 3.1 artikuluan: Eskola-jantokia hezkuntza-zerbitzu osagarria da, ikasleak goizez eta arratsaldean eskolatzeko beharri erantzuteko ezarria. Ondorioz, ofizialki eskolaldi zatituko egunetan baino ez du funtzionatuko.

Arau hori aplikatzearen ondorioz, Nafarroako Gobernuak dirulaguntzak ematen dizkie sozioekonomikoki egoera ahulean dauden ikastetxe publikoetako ikasleei, baina ez ditu barne hartzen arratsaldeko eskola-ordurik ez duten hilabeteak (iraila eta ekaina), ezta asteazkenak ere, horietan ez baitago eskolarik arratsaldean. Horri gehitu behar zaio ikastetxe askok jardunaldi jarraitua hautatzearen ondorioz laguntza horiek ezbaian daude-

la; izan ere, laguntza jasotzen ahalko dute soilik arratsaldeetan eskolaz kanpoko ekintzetan izena eman duten ikasleek, eta familiek ez zekiten hori ikastetxeetan eskolaldi jarraitua bozkatu zutenean.

COVID-aldian, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusiaren 305/2021 Ebazpena eman zuen, zeinaren bidez onetsi baitziren 2021/2022ko ikasturtean eskola-jantokiaren zerbitzua emateko jarraibideak.

II. eranskinean haxe adierazten zen: COVID-19aren osasun krisiaren ondoriozko inguruabarrak direla-eta, 2021-2022ko ikasturtean garraiatutako ikasleendako eta/edo ekonomia egoera ahulean daudenendako jantokirako laguntzak, hasiera batez, eskolaldi jarraituari lotuta emanen dira, ikasturteko 175 egunetarako, irailetik ekainera, asteen 5 egunetarako, salbu eta erabakitzen bada, osasun arriskua aldatu delako, beste egoera batera pasatu behar dela edo eskolaldia aldatzen bada.

Hau da, irakaskuntza-aldi horretan ez zen bete ekainean eta irailean eta asteazkenetan jantokirako laguntzak ez emateko arau orokorra.

Alabaina, hainbat krisi globalen ondorioz egoera bereziki ahulean jarraitzen dugu, eta 2022-23ko ikasturterako estaldura berberak bermatu beharrean, Hezkuntza Departamentuak erabaki du berriro aplikatzea 186/1993 Foru Aginduaren 3.1 artikulua, zeinak ez zituen beka jasotzeko modukotzat jotzen iraila eta ekaina eta asteazkenak; are gehiago, aurreko ikasturtean finantzatzen zituen zenbatekoak murriztu ditu.

Hainbat udalek ikasle ahulenei zuzendutako laguntza horiek osatu dituzte, jantokiak kudeatzen dituzten Guraso Elkarteendako dirulaguntzen bidez eta oinarrizko gizarte-zerbitzuek bulzatutako programen bidez.

Gaur egungo zenbakietara etorrita, esan behar dugu Nafarroako Gobernuak 2021-2022ko ikasturtean eskola-jantokirako 4,45 euroko dirulaguntza ematen zuela eguneko (ekaina, iraila eta asteazkenak barne); aurten, aldiz, eguneko 4 euro ematen ditu, aipatu epe horiek barne hartu gabe.

Ikastetxe itunduez bezainbatean, sistema are opakuagoa eta berme gutxiagokoa da. Nafarroako Gobernuak badu dirulaguntza-deialdi bat, eta sozioekonomikoki egoera ahulean dauden ikasleak dituzten ikastetxeak deialdi horretara aurkeztu

dira. 2020-21eko ikasturtera arte, deialdi horretan eskola-jantokietarako diru-kopuru zehatzak zeuden (urtean 400 eurora bitarte 2020-2021eko ikasturtean zehar). 2021-2022ko ikasturteko deialdian oinarriak aldatu zituzten, eta diru-poltsa bat zegoen eskolako ekipamendura, eskolaz kanpoko jardueretara eta jantoki-zerbitzura bidera zitekeena; laguntzak banatzen ziren aintzat hartuta betekizunak betetzen zituen ikastetxe bakoitzaren ikasle-kopurua eta dirulaguntzara bideratutako gehieneko zenbatekoa. Hortaz, ezin da jakin zer kopuru zehatz bideratzen den jantokirako sozioekonomikoki egoera ahulean dauden profil horien kasuan.

Bestalde, atzera begiratu gero, aipatu behar da egoera ahulean egonda irakaskuntza itundua aukeratu duten familiek jasotako beka askoz txikiagoak izan direla. Oro har, ikastetxe publikoetakoei emandakoaren erdia jaso dute. Zer gertatzen da? Pobre bat ez da hain pobre ikastetxe itundu batean ikasten badu? Zigorren al zaie seme-alaben ikastetxea hautatzeko askatasuna erabiltzen duten familiei? Ekonomia-premia beraren aurrean, zergatik jasotzen dute batzuek besteek halako bi?

Horrek desberdintasun sozialak areagotzen ditu, justiziatik eta kohesio sozialetik urruntzen diren irizpide subjektiboak ezartzen baititu.

Hori dela-eta, erabat beharrezkoa da alde batera uztea ikaslea ikastetxe publiko edo itundu batean eskolatuta dagoen, eta eskola-jantokirako laguntza doitzeko ikasleen egoera sozioekonomikoren arabera, horrela hezkuntza era askean hautatzea baldintza dezakeen desberdinkeria arbitrario hori arintzeko.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Parlamentuak honako hau dio:

1. Nafarroako Gobernuak premiatzen du, Hezkuntza Departamentuaren bidez, maiatzaren 11ko 186/1993 Foru Agindua alda dezan, eskola-egun guztietan bekatze aldera garraiatutako eta sozioekonomikoki egoera ahulean dauden ikasleak, edozein dela ere haien jardunaldia, jarraitua edo zatitua.

2. Premiatzen du jantokirako laguntzak emateko irizpide gisa erabil dezan familien egoera sozioekonomikoa, ikasleak sare publikoan edo itunduan eskolatuta dauden kontuan hartu gabe.

Iruñean, 2022ko azaroaren 3an

Foru parlamentaria: Pedro González Felipe

10-22/MOC-00033. Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da etxegabetasuna desagerrarazte alderako politika publikoak bultzatzen.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2022ko azaroaren 3an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da etxegabetasuna desagerrarazte alderako politika publikoak bultzatzen”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du

1. Etxegabetasuna desagerrarazte alderako politika publikoak bultzatzen, gaiari helduz faktore ekonomikoak eta kulturalak dituen egiturazko arazo gisa.

2. Kooperatzeko eremuak bultzatzen toki entitateekin eta etxebizitza eta gizarte zerbitzuetako arloetatik, etxegabetasuna desagerrarazteko jardunbide onak trukatzeari etapolitika publiko eraginkorrak bultzatzeari begira.

3. Jarrai dezan sustatzen neurri gehiago hartzea etxebizitzaren eskaintza areagotzeko, etxegabetasuna desagerraraztera bideratutako toki entitateen programetarako.

4. Indartu dezan tokiko poliziaren, Foruzaingorenen, segurtasuneko indar eta kidegoen eta babes zibilaren prestakuntza, larrialdi egoeran dauden etxebizitzarik gabeko pertsonen arreta emateko.

5. Prozesuak hobetu eta protokoloak egokitu ditzen etxebizitzarik gabeko pertsonen babes sozialeko sistemara iritsi ahal izan daitezen.

6. Etxegabetasuna artatzeko ereduaren alorrean dauden joera nazionalak eta internazionalak aztertu ondoren, bai eta Nafarroako egoera ere, behin betiko eredu-proposamen bat ezartzea Nafarroan etxebizitzarik ez daukaten pertsonak artatzeko”.

Iruñean, 2022ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

10-22/MOC-00100. Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen da ukitutako udalekin eta, oro har, hezkuntza-erkidegoarekin, bultza dezan DBHko lehen zikloa ezartzea hura edukitzeko borondatea adierazi duten tokietan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2022ko azaroaren 3an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen da ukitutako udalekin eta, oro har, hezkuntza-erkidegoarekin, bultza dezan DBHko lehen zikloa ezartzea hura edukitzeko borondatea adierazi duten tokietan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroa-

ko Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen du ukitutako udalekin eta, oro har, hezkuntza-erkidegoarekin, bultza dezan DBHko lehen zikloa ezartzea hura edukitzeko borondatea adierazi duten tokietan”.

Iruñean, 2022ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

10-22/MOC-00103. Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da garraio txartel bateratu bat (GTB) ezar dezan, Nafarroan barnako mugikortasuna erraztuko duena.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2022ko azaroaren 3an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da garraio txartel bateratu bat (GTB) ezar dezan, Nafarroan barnako mugikortasuna erraztuko duena”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Gobernua premiatzen da:

1. Heldu den urtean, 2023an, garraio txartel bateratu bat (GTB) ezar dezan, erkidegoan barnako mugikortasuna erraztuko duena Nafarroan bat egiten duten garraibide guztien artean.

2. Txartel bateratuari hobariak ezar diezazkion behar duten gizarte-talde guztientzat”.

Iruñean, 2022ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

10-22/MOC-00099. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premia-tzen da Sodenaren Administrazio Kontseilutik legezko ekintzak abiaraz ditzan Nafarroako Enpresarien Konfederazioaren aurka, horrek eros eta ordain dezan Albyn Medical SLk 2022ko maiatzaren 7an sinatutako akordioaren bidez erositako maskaretatik soberan gelditutakoen stocka.

OSOKO BILKURAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2022ko azaroaren 3an egindako bileran, honako mozio hau ezetsi du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premia-tzen da Sodenaren Administrazio Kontseilutik legezko ekintzak abiaraz ditzan Nafarroako Enpresarien Konfederazioaren aurka, horrek eros eta ordain dezan Albyn Medical SLk 2022ko maiatzaren 7an sinatutako akor-

dioaren bidez erositako maskaretatik soberan gelditutakoen stocka". Mozioa Adolfo Araiz Flamari-que jaunak aurkeztu zuen eta 2022ko urriaren 31ko 121. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

10-22/MOC-00102. Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premia-tzen da gasoliozko galdaren jabeendako laguntzen lerro bat abiaraz dezan.

OSOKO BILKURAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2022ko azaroaren 3an egindako bileran, mozio bat ezetsi du, Nafarroako Gobernua premia-tzen duena gasoliozko galdaren jabeendako laguntzen lerro bat abiaraz dezan. Mozioa Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak aurkeztu zuen

eta 2022ko urriaren 31ko 121. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2022ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

10-22/POR-00359. Galdera, barne fiskalizazioko txostenak argitaratzeko erabakiari dagokionez Gardentasunaren Kontseiluak 2022ko abuztuaren 29an hartutako erabakia betetzeari buruzkoa.

RAMÓN ALZORRIZ GOÑI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko azaroaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ramón Alzorriz Goñi jaunak aurkeztutako galdera, barne fiskalizazioko txostenak argitaratzeko erabakiari dagokionez Gardentasunaren Kontseiluak 2022ko abuztuaren 29an hartutako erabakia betetzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioko eledun Ramón Alzorriz Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, lehen lehendakariorde eta Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer urrats ari da egiten Nafarroako Gobernua Gardentasunaren Kontseiluak 2022ko abuztuaren 29an hartutako erabakia bete dadin, barne fiskalizazioko txostenak argitaratzeko hartutako erabakia, alegia?

Iruñean, 2022ko urriaren 25ean

Foru parlamentaria: Ramón Alzorriz Goñi

10-22/POR-00360. Galdera, “Aste zuria” eskola kanpainako ikasleen kopuruak pandemia garaiko mailan mantentzeari buruzkoa.

RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko azaroaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak aurkeztutako galdera, “Aste zuria” eskola kanpainako ikasleen kopuruak pandemia garaiko mailan mantentzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Kultura eta Kiroleko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2022ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Kultura eta Kiroleko kontseilariak Kultura eta Kiroleko Ba-

tzordearen hurrengo bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zergatik jarraitzen du "Aste zuria" eskola kanpainan parte hartzen ahalko duten ikasleen kopuruak pandemia garaiko kopuru berean?

Iruñean, 2022ko urriaren 27an

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

10-22/POR-00361 Galdera, Nafarroako Foru Komunitatean giza papilomaren birusaren aurkako txertoa 12 urteko mutilentzat ezartzeari buruzkoa.

PATRICIA FANLO MATEO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko azaroaren 7an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patricia Fanlo Mateo andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Foru Komunitatean giza papilomaren birusaren aurkako txertoa 12 urteko mutilentzat ezartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko azaroaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Patricia Fanlo Mateo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan

ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Giza papilomaren birusarekin (GPB) lotutako infekzio eta neoplasia ohikoenak prebenitzen ahal dira zenbait txertoren bidezko immunizazioari esker.

Nafarroako Foru Komunitatean, 12 urteko neskentzat bakarrik sartzen da GPBren aurkako txertoa egungo txerto-egutegian. Bi dosi ematen dira, gutxienez ere 5-6 hilabeteko tartearekin (erabilitako txertoaren arabera). Gizonezkoei ez zaie eskaintzen.

Noiz ezarriko da Nafarroako Foru Komunitatean giza papilomaren birusaren aurkako txertoa 12 urteko mutilentzat, neskentzat ezarrita dagoen eran?

Iruñean, 2022ko urriaren 28an

Foru parlamentaria: Patricia Fanlo Mateo

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

10-22/CIE-00002. Ikerketa batzorde bat eratzea, joan den ekainean Nafarroan gertatutako suteen kudeaketaren gainekoa.

OSOKO BILKURAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuak, 2022ko azaroaren 3an egindako Osoko Bilkuran, ezetsi du Navarra Suma talde parlamentarioak aurkezturiko proposamena, joan den ekainean Nafarroan gertatutako suteen kudeaketaren gaineko ikerketa batzorde bat eratzekoa.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2022ko azaroaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias
